

2007KO MARTXOAREN 30EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OSOKO BILKURA BEREZIAREN AKTA =====	ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 30 DE MARZO DE 2.007. =====
<u>BILDUTAKOAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Iñaki Zarraoa Zabala Jn.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>
----------------------------	------------------------------------

Imanol Landa Jauregi (EAJ-PNV)
José Manuel Etxebarria Gangoiti (EAJ-PNV)
Fernando Burzako Butron (EA)
Iñaki Urkiza Arana (EB-B.)
Guzmán Aranaga Gaztañaga (EAJ-PNV)
Andrés Uriarte Garmendia (EAJ-PNV)

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
---------------------------	--------------------------

Begoña Ezkurra Ciruelos (EAJ-PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ-PNV)
Iñaki Gerediaga Goikolea (EAJ-PNV)
Gorka Uribe Cabello (EAJ-PNV)
José Ramón Bilbao Azkue (EA)
María Luisa Arrue Bergareche (P.P.)
Jesús Toca Toña (P.P.)
Mercedes Pérez Ducloux (P.P.)
Carlos Aranguren Echevarria (P.P.)
Eduardo Andrade Aurrecochea (P.P.)
Carlos Castellanos Peña (P.P.)

Juan Luis Eguiluz Borde (P.P.)
Rafael Moreno Martín (P.P.)
Raquel González Díez-Andino (P.P.)
Luis Almansa Rubio (P.S.E.-E.E.)
Gotzone Mora Temprano (P.S.E.-E.E.)
Ricardo Villanueva Marcos (P.S.E.-E.E.)
Aitor Lafuente Calderón (E.B.-B.)

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Iñaki Zarraoa Zabala jauna dela, egun horretako goizeko hamarretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, bilkura berezia egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita Behin-behineko Kontu-hartzailea, Luis Angel Corcuera Ruiz jauna, ere.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio.

Alkateak bilkura berezia egiteko deia talde Popularreko udal-bazkideek eskatuta egin duela adierazi du, eta ondorioz, bilkuraren edukia, eskatutako gai-zerrendako puntua izango da, eta aipatutako taldearen proposamena barne hartzen da.

Horren ostean, ondoren aipatzen den gai-zerrendako puntu bakarraren gaia eztabaidatzen hasi dira:

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Iñaki Zarraoa Zabala, se reunió a las trece horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión extraordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más el Sr. Interventor municipal don Luis Ángel Corcuera Ruiz.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión.

El Alcalde indica que se ha convocado el Pleno extraordinario, a petición de los Corporativos del grupo Popular, y que por tanto el contenido del mismo es el punto del orden del día que ha sido solicitado, y que incorpora la propuesta formulada por dicho grupo.

Seguidamente se pasó a tratar el siguiente asunto único del orden del día:

64.- PP ALDERDIAREN UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA: BARAKALDOKO UDALAK EGITEN DUEN BEZALA, GETXOKO UDALAK BEHAR BESTE NEURRI HARTZEA, LURRALDEKO ZATI-PLANA GURE UDALERRIAN INDARREAN EZAR EZ DADIN, GETXOREN ETA GETXOZTAR GUZTIEN ONURA OROKORRARI AUSARKI GAITZ EKARRIKO DIOLAKOAN.

64º.- PROPUESTA DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/“QUE EL AYUNTAMIENTO DE GETXO AL IGUAL QUE ESTÁ HACIENDO EL AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO, SE COMPROMETA A ADOPTAR LAS MEDIDAS NECESARIAS PARA QUE EL PTP (PLAN TERRITORIAL PARCIAL) NO SEA DE APLICACIÓN EN NUESTRO MUNICIPIO POR CONSIDERAR QUE ATENTA GRAVEMENTE CONTRA LOS INTERESES DE GETXO Y DE TODOS LOS GETXOTARRAS”.

Marisa Arruek ondorengo hau dioen idazkia irakurri du:

“2006ko maiatzaren 11n Udalaren Gobernu Batzarrak 325. puntuan, EAJ, EA eta EB/B taldeen botoekin onetsi zituen Hiri-Antolamenduko Plan Orokorra Bilbao metropolitarraren Eremu funtzionalaren Lurraldeko Zati-planeko zehaztapenetara egokitzeko dokumentuaren prestakuntza lanak. Plan hori Andra Mariren Hedapen Plan gisa da ezagunagoa. Hala ere, 2007ko martxoaren 2an, joan zen ostiralean, alegia, lehenengo alkateordea eta udal-hauteskundeetarako EAJ taldearen hautagai den Imanol Landa jaunak, dokumentu horren kontrako jarrera azaldu zuen, eta bere buruarekin kontraesanean erori zen, izan ere, dokumentua lehenago Udalaren Gobernu Batzarrak onetsi baitzuen, eta bere alderdiaren kontrakoa adierazi zuen. Udalaren Batzarrak hartutako erabakia sinatu zuen beste pertsona bat ere, EB/B alderdiaren hautagaia den

Marisa Arrue da lectura a un escrito que dice lo siguiente:

“La Junta de Gobierno Local del pasado día 11 de mayo de 2.006, en su punto 325, aprobó con los votos del PNV, EA y EB/B los trabajos preparatorios del documento de adecuación del Plan General de Ordenación Urbana a las determinaciones del Plan Territorial Parcial del Área funcional del Bilbao Metropolitano, más conocido como Plan de Expansión de Andra Mari. Sin embargo, el pasado viernes 2 de marzo de 2007, el primer Teniente de Alcalde y candidato por el PNV a las elecciones municipales don Imanol Landa, se mostró contrario a este documento, contradiciéndose a sí mismo, al haberlo aprobado anteriormente en la Junta de Gobierno Local, y contradiciendo a su propio partido. También, otro de los firmantes de ese acuerdo de la Junta Local, el candidato de EB/B Sr. Urkiza, ha modificado su criterio respecto a este documento, contradiciéndose a sí

Urkiza jauna, alegia, dokumentu horrekiko irizpidea aldatu du, eta bere burua eta alderdiarekin kontraesanean erori da. Udalaren Gobernu Batzarreko beste kide batek ere, EA alderdiko Burzako jaunak, hain zuzen, Udalaren Gobernu Batzar hartako erabakian zehazten denaren kontrako jarrera azaldu zuen. PPren ustez, 2006ko maiatzaren 16an egin zen Udalaren Gobernu Batzarrean hartutako erabakia sinatu zuten kideetariko bat ere aipatutako erabakiaren edukiarekin ados ez baldin badago, zertarako balio du indarrean mantentzeak? Ez al da zentzuzkoagoa erabaki hura atzera botatzea? Hasiere-hasieratik, PPko kideak eta Getxoko biztanleak izan gara EAJ, EA eta EB/B-k osatzen duen Gobernu taldeak Getxo suntsitu eta hedatzeko planteatutako plan horren guztiz kontra azaldu garen bakarrak. Getxoko PPren ustez, Getxoko alderdi politikoen Udalbatzan definitu behar dituzte hain garrantzitsua den gai honi buruz daukaten jarrera, eta ez komunikabideetan. Horregatik proposatu dugu ohiz kanpoko bilkura hau. Lehen esan dudana bezala, Getxo Hiri-Antolamenduko Plan Orokorrean moldaketa hau, Gobernu taldeak aurkeztu du eta Andra Mariako eremurako Bilbao metropolitarraren Lurraldeko Zati-planak proposatzen dituen aginduetara egokitu da Lurraldeko Zati-Planak Andra Mariako eremu horrentzat 7.200 eta 11.000 etxebizitza bitartean urkila bat daukan etxebizitza eraikuntza diseinatu du. Lurraldeko Zati-Planak Getxoren azkena suposatzen du. Jakintsu batek, Diputazioko eserleku batetik gure udalerrira suntsitzea erabaki du, eta etxebizitza kopuru basati bat eraikitzea erabaki du. Berdin zait 7.000, 8.000 ala 5.000 diren. Kontua da, gure herrian

mismo y a su partido. Otro de los integrantes de la Junta de Gobierno Local, el Sr. Burzako de EA, también se manifestó contrario a lo determinado en ese acuerdo de la Junta de Gobierno Local. El PP piensa que si ninguno de los firmantes de ese acuerdo de la Junta de Gobierno Local del pasado 16 de mayo del 2006 está de acuerdo con el contenido del mismo, ¿de qué sirve mantenerlo en vigor?. ¿No es más prudente revocar ese acuerdo?. Desde un principio, sólo los miembros del PP de Getxo y los vecinos, nos hemos mostrado totalmente contrarios al plan de destrucción y expansión de Getxo planteado por el equipo de Gobierno, PNV, EA y EB/B. El PP de Getxo considera que es en el Pleno municipal, y no en los medios de comunicación, donde los partidos políticos de Getxo deben definir sus posturas en relación con este asunto tan importante. Por ello hemos propuesto este Pleno extraordinario. Como he dicho antes, esta adecuación al Plan General de Ordenación Urbana de Getxo, presentada por el equipo de Gobierno y adaptada a los mandatos propuestos por el PTP, Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano para la zona de Andra Mari. El PTP ha diseñado para esta zona de Andra Mari una construcción de viviendas que tiene una horquilla entre 7.200 a 11.000 de las mismas. El PTP supone el final de Getxo. Un sabio, desde un sillón de la Diputación ha decidido destruir nuestro municipio, y ha decidido construir una salvajada de viviendas, me da igual que sean 7.000, 8.000 ó 5.000, ha decidido destruir el único pulmón que queda en nuestro pueblo, ha decidido destruir un modo de vida de muchos de nuestros vecinos y destruir nuestra calidad de vida. Un

geratzen den birika bakarra suntsitzea erabaki duela, baita gure auzokide askoren bizimodua suntsitzea eta gure bizitzaren kalitatea suntsitzea ere. Eserleku batean eserita dagoen gizon batek Getxo gaur egun dena izateari uzteko ordua dela erabaki du, eta lo egiteko hiri bat bilakatu nahi du milaka eta milaka etxebizitzekin, eta Getxoko biztanleekin, bertan bizitzen direnekin, alegia, adostu gabe hartu du erabakia, ez du ez eremu horretan bizi diren pertsonekin, ezta udalerriko gainontzeko eremuetan bizi direnekin ere adostu. Eta Gobernuko taldeak, hau da, EAJ-k Landa jaunarekin, EB/B-k eta EAK Diputazioko jaunak Getxorentzat esan duena txintik ere esan gabe betetzea erabaki dute, eta Bizkaiko Erakundetik zehazten dietenera egokitzea erabaki dute, baina, noren ordezkari da Gobernuaren taldea?, EAJ-rena ala biztanleena?, eraikuntza-enpresen interesena ala biztanleena? Erantzuna argi dago, Getxoko Partidu Popularra da biztanleen ordezkaria, beren botoa eman zieten biztanleena eta botoa eman ez zieten biztanleena ere, eta horregatik erabaki du Getxorentzat ez duela Lurraldeko Zati-plana nahi, eta horregatik aurkezten du adosteko proposamen hau, gainontzeko alderdi politikoak ere Getxoko Lurraldeko Zati-planaren kontra jar daitezten, nola edo hala, helegitea aurkeztuz edo Lurraldeko Zati-planari dagokionez intsumiso deklaraturaz. Ez dezagun bete Lurraldeko Zati-planak zehazten duena, besteak beste, Getxorentzat ez delako ona eta ez duelako Lurzoruaren Legea betetzen, eta argi dago Lege horrek maila altuagoa daukala. Diputazioari aurre egiteko denbora izango dugu, hari baita aurka egiteko eta eurek nahi duten Getxo ez dugula eraikiko esateko, eta horren orde,

señor sentado en un sillón de la Diputación ha decidido que ya está bien de que Getxo sea lo que es, y lo quiere convertir en una ciudad dormitorio con miles y miles de viviendas, y lo ha hecho sin consensuarlo con los vecinos de Getxo, con los que viven, tampoco lo ha consensuado con los que viven en esa zona, ni con los que viven en el resto del municipio. Y el equipo de Gobierno, el PNV con el Sr. Landa, EB/B y EA han decidido acatar, sin rechistar, lo que ha dicho este señor de la Diputación para Getxo, y han decidido acomodarse a lo que les marcan desde la institución de Bizkaia, pero ¿a quién representa este equipo de Gobierno?, ¿al PNV, o a los vecinos?, ¿a los intereses inmobiliarios, o a los vecinos?. La respuesta está clara, el Partido Popular de Getxo si representa a sus vecinos, a los que le votaron y a los que no le votaron, y por eso ha decidido que no quiere el PTP para Getxo, y por eso presenta esta propuesta de acuerdo, para que el resto de las formaciones políticas se posicionen en contra del PTP de Getxo, de una manera o de otra, recurriéndola o declarándonos insumisos al PTP. No acatar lo establecido por el PTP, porque entre otras muchas razones no es bueno para Getxo e incumple la Ley del Suelo que tiene rango claramente superior. Tiempo habrá para enfrentarnos con la Diputación, para hacerle frente y decirle que no vamos a construir el Getxo que ellos quieren, si no que vamos a hacer el Getxo que quieren los vecinos de Getxo. Por lo tanto, el Partido Popular está en contra del PTP, ¿Y Vd. Sr. Landa?, ¿y Vd. Sr. Urkiza?, ¿y el Sr. Burzako?. Por favor, no se vayan por los cerros de Úbeda, y contesten a nosotros y a todos los

Getxoko biztanleek nahi duten Getxo eraikiko dugula esateko ere. Ondorioz, Partidu Popularra Lurraldeko Zati-planaren kontra dago, eta zu, Landa jauna?, eta zu, Urkiza jauna?, eta Burzako jauna? Mesedez, ez zaitzte gaitik aldendu, eta erantzun egiguzue guri eta biztanle guztioi hemen, galdera erraz honi. Bizkaiko Foru Aldundiak diseinatu duen dokumentu horrek gaur egun indarrean dagoen eta Udalei egozten zaien Lurzoruaren Legearen eskumenak modu argian urratsen ditu, horregatik, Udaletik eskumen horiek defendatu behar ditugu, gure erantzukizuna baita Getxoko biztanleen ordezkari gisa. Hori dela eta, gure adostasun proposamen honek, biztanleriaren gehiengoaren laguntzaz, Getxoko Udalak, Barakaldoko Udala egiten ari den bezala, Lurraldeko Zati-plana gure herrian aplikatu ez dadin beharrezkoak diren neurriak hartzeko konpromisoa hartzeko eskatzen du, izan ere, Getxo eta getxotarren interesen kontra larriki eragiten duela uste baitugu. Orain, bozeramaile guztien iritzia entzun nahiko nuke, baina bereziki, EAJ-ko bozeramaile eta hautagai den Landa jaunarena entzun nahiko nuke. Landa, zuk komunikabideei, orain, hauteskundeak baino bi hilabete lehenago, zuk eta zure alderdiak Andra Mari auzorako pentsatu, diseinatu, aurkeztu eta onetsitako planaren alde ez zaudela esan diezu. Baina, zuk esandakoaren arabera, Andra Marirako zuen etorkizuneko proiektuak udaleko hirigintza planteamenduen moldaketa, Bilbao metropolitarraren Lurraldeko Zati-planaren zehazten dena egokitu beharko da. Nor engainatu nahi duzu, Lana jauna?, Lurraldeko Zati-planak Andra Marirentzat gutxienez 7.200 etxebizitza

vecinos aquí, a esta sencilla pregunta. Este documento diseñado por la Diputación Foral de Bizkaia invade claramente las competencias que la actual Ley del Suelo atribuye a los Ayuntamientos, por lo que desde el Ayuntamiento debemos defender las competencias como es nuestra responsabilidad, como representantes de los vecinos de Getxo que somos. Por eso nuestra propuesta de acuerdo apoyada por una inmensa mayoría de los vecinos, que el Ayuntamiento de Getxo, al igual que se está haciendo en Barakaldo, se comprometa a adoptar las medidas necesarias para que el PTP no sea de aplicación en nuestro municipio, por considerar que atenta gravemente a los intereses de Getxo y de los getxotarras. Ahora me gustaría oír la posición de todos los portavoces, pero en especial, la del portavoz y candidato del PNV Sr. Landa. Landa, Vd. ha dicho a los medios de comunicación, ahora, a dos meses de las elecciones, que no está de acuerdo con el proyecto pensado, diseñado, presentado y aprobado por Vd. y su Partido para el barrio de Andra Mari, pero según Vd, su futuro proyecto para Andra Mari se debe ajustar la adaptación al planeamiento urbanístico municipal a lo conformado por el PTP, Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano. ¿A quién quiere engañar Sr. Landa?, el PTP propone como mínimo 7.200 viviendas para Andra Mari, y el proyecto que a Vd. no le gusta pero lo aprobó, programa 8.368. ¿Está Vd. Sr. Landa dispuesto a acatar las directrices que marca el PTP para el municipio de Getxo?, o por lo contrario ¿está Vd. dispuesto a apoyar las medidas necesarias para que el PTP no se desarrolle en nuestro municipio?. Díganos la verdad aquí y ahora Sr. Landa, para que los vecinos sepamos

proposatzen ditu, eta zuk gustuko ez duzun baina onetsi zenuenak, 8.368 programatzen ditu. Landa jauna, prest al zaude Lurrealdeko Zati-planak Getxoko udalerrirako ezartzen dituen arauak betetzeko?, edo gure udalerrian Lurrealdeko Zati-plana garatu ez dadin beharrezkoak diren neurriak hartzeko prest al zaude? Landa jauna, esaguzu egia, hemen eta orain, biztanleok zuk zer defendatzen duzun jakin dezagun, Andra Mariko biztanleak defendatzen baldin badituzu, izan zaitez ausarta eta emaitza zure laguntza Lurrealdeko Zati-planak Getxorako daukan diseinua geldiarazteko proposamenari. Bestalde, gure proposamenaren alde ez baldin bazaude, jarrera elektoralista hutsa dela eta ez dela batere sinesgarria jakingo dugu. Hau da Andra Mariko proiektuari buruz esan nahi genuena”.

Almansa jaunak parte hartu du eta bilkurari planteatu zaion proposamenaren eduki zehatza tokiz kanpo dagoela adierazi du, izan ere, errekurtsioak aurkezteko epea bukatu da, eta epe horretan Barakaldoko Udalak Administrazioarekiko Auzi-errekurtsio bat planteatu du, baina dagoeneko ezinezkoa da planteatzea, aplikatzeko ekintzen bitartez kontra egiten ez baldin bazaio, baina hori, aipatutako ekintzak gauzatzen direnean soilik gertatu ahal izango da. Udalak onetsi duen Aurrerapenari dagokionez, talde Sozialistak horren kontra dagoela behin baino gehiagotan esan duela adierazi du, izan ere, azalera gehiegi hartzen duen aldaketa bat planteatzen baita, eta hazkuntzak beste modu batean antolatu beharko liriateke, labarretik hurbil dagoen eremuan zona libre gehiagorekin, pixkanaka egin beharko liriateke, hiri-bilbeko elementuak gehitu beharko liriateke,

qué es lo que Vd. defiende, si defiende a los vecinos de Andra Mari, sea valiente y apoye nuestra propuesta de acuerdo paralizando el PTP en su diseño para Getxo. Por lo contrario, si no lo apoya, sabremos que la postura es meramente electoralista y que no es nada creíble. Esto es lo que queríamos decir con relación al proyecto de Andra Mari”.

Interviene el Sr. Almansa indicando que el contenido concreto de la propuesta de acuerdo que se plantea al Pleno está fuera de lugar ya que el plazo para recurrir ha pasado, plazo en el que el Ayuntamiento de Barakaldo si ha planteado un recurso Contencioso Administrativo, pero que ya es imposible su planteamiento, a menos que impugne a través de los actos de aplicación, pero que esto sólo podrá ser cuando se produzcan dichos actos. Respecto al Avance aprobado por el Ayuntamiento, indica que el grupo Socialista ha dicho repetidas veces que no están de acuerdo con el mismo, porque se plantea una modificación que ocupa excesiva superficie, que habría que ordenar de manera diferente los crecimientos con mayores zonas libres en las proximidades del acantilado, realizarse de forma progresiva, incorporar elementos de trama urbana, etc. Finaliza indicando que el grupo

etab. Talde Sozialistak alternatiba desberdin bat daukela azalduz eta kontuan hartzeko eta udaleko gainontzeko taldeekin eztabaidatzeko prest dagoela esanez bukatu du.

Landa jaunak, EAJ ordezkatzuz, 2006an Udalaren Gobernu Batzarrak onetsi zituen prestakuntza lanek Udalak etorkizunean har ditzakeen erabakiak ez dituela baldintzatzen adierazi du. Talde Popularrak ezagutza faltagatik edo nahita gezurra esaten duela adierazi du, izan ere, Lurraldeko Zati-Planean zehaztutako etxebizitzak urkilak, eta talde Popularrak Andra Mariri esleitu dizkionak, ez dira derrigorrez bete beharrekoak, orientaziorako soilik diren elementuak baitaizkate. Ustelkeriari dagokionez, izatekotan, bere Alderdiaren barrukoa izan dela penintsulako toki desberdinetan gertatu dena adierazi du. Barakaldoko Udalak epearen barruan Administrazioarekiko Auzi-errekurtso bat planteatu zuela esan du, baita talde Popularrak epeak ezagutzen ez dituela, edo bestela, zabarkeriaz ekiten duela ere, nahiz eta Lurraldeko Zati-planari buruzko kontuak aholkulari tekniko talde batekin aztertzen ari zirela publikoki adierazi zuten, eta hori epea igarotzen uztearekin inkongruentea da eta ez du alternatibarik aurkezten. Lurzoruen Legeari ere kontra egingo dion galdetu dio talde Popularrari, izan ere, berriz dentsifikatzeko irizpideak azaltzen baititu, eta egitekoan, epearen barruan egingo duten. Talde Popularrak Lurraldeko Zati-plana ez duela aztertu errepikatu du, baita Andra Mari eremurako ez daukela irizpiderik ere, bestalde, EAJ-k Andra Mari 8.000 etxebizitza eraikitzean ez datzan alternatiba bat daukela adierazi du.

Socialista tiene una alternativa diferente que está dispuesta a considerarla y debatirla con el resto de los grupos municipales.

El Sr. Landa, en representación del PNV, indica que los trabajos preparatorios aprobados por la Junta de Gobierno Local el año 2006, no condicionan las determinaciones futuras que pueda adoptar el Ayuntamiento. Indica que el grupo Popular miente intencionadamente o por desconocimiento, ya que las horquillas de viviendas que determina el PTP, y que por parte del grupo Popular se han adscrito a Andra Mari, no son de obligado cumplimiento ya que contienen elementos meramente orientativos. Respecto a la corrupción indica al Partido Popular que, en todo caso se ha producido en los ámbitos de su Partido en diferentes sitios de la península. Manifiesta que Barakaldo ha interpuesto un recurso contencioso administrativo dentro del plazo, y que o bien el grupo Popular no conoce los plazos, o actúan con desidia, pese a que manifestaron públicamente que estaban estudiando con un equipo técnico de asesores todas las cuestiones relativas al PTP, lo cual es incongruente con dejar pasar el plazo y no presenta alternativas. Pregunta al grupo Popular a ver si también van a impugnar la Ley del Suelo, ya que recoge criterios de redensificación, y si lo van a hacer dentro de plazo. Insiste en que el grupo Popular no ha estudiado el PTP y no tiene criterio para la zona de Andra Mari, mientras que el PNV tiene una alternativa que no pasa por construir 8.000 viviendas en Andra Mari, sino por un crecimiento paulatino, con alturas generales de 3 ó 4 plantas, que

Alternatiba horren arabera, hazkuntza pixkanaka egingo da, orokorrean, 3 edo 4 solairuko garaierekin, eta komunikazio kale nagusietan soilik igoko litzateke muga hori. Proposamen horren bitartez, hiri bat sortuko litzateke, merkataritza bizitzaduna, garraibide eskuragarriekin, eta hori guztia, hiritarren parte hartzearekin, beren legezko interesak ere aintzat hartuz. Proposamen hori eragina jasoko duten hainbat pertsona, talde eta elkarteri azaldu zaie, eta azaldua izaten jarraituko du. Azkenean, Lurraldeko Zati-planak Hiri-Antolamenduko Plan Orokorrean udalerriko biztanleen arazoak, eta baita Andra Marien azaroak ere konpontzen lagundu dezakeen aldaketa bat egiteko aukera ematen duela esanez, eta EAJ-k aukera hori aprobetxatuko duela esanez bukatu du, eta PP beti atoiari eramatea kritikatu du, izan ere, kontserbadoreak dira, eta HAPNaren kontra ere jarri zirela, eta gaur egun, gehien defendatzen dutenak direla gogorarazi du, baita gauza bera gertatu zela kruzeroen kaia eta beste ekintza batzuekin ere.

Burzako jaunak Eusko Alkartasunak Ingurumen Saileko Eremutik Aurrerapenari buruz kontuan hartzekoak diren zenbait puntu planteatu zituela eta ez zirela kontuan hartu adierazi du. Horien arabera, neurritz kanpoko urbanizazio bat planteatzen ari zen, iraunkortasunaren irizpideetatik urrun eta Getxoren etorkizuna arriskuan jarritz. Dimentsioak ezartzeari dagokionez, alde aurretik udalerraren beharrak aintzat hartu behar direla uste du, eta betiere, egokitzen jotzen denean, beste udalerriri inguru batzuk aintzat hartu ere, eta gai hau duela urtebete Visesa-ri

se incrementarían únicamente en las zonas más próximas a las arterias de comunicación, una propuesta que genere ciudad, con vida comercial, transportes accesibles, y todo ello realizarlo con la participación ciudadana, atendiendo también a sus legítimos intereses, propuesta que ha explicado a diferentes afectados, colectivos y asociaciones, y que va a seguir explicando. Finaliza manifestando que el PTP da una posibilidad para realizar una modificación del Plan General de Ordenación Urbana, que ayude a resolver los problemas de los vecinos del municipio, y también de los de Andra Mari, y que el PNV va a aprovechar esa oportunidad, criticando que el PP siempre ande a remolque, como conservadores que son, y recuerda que se opusieron al PGOU para, en este momento, ser los que más lo defienden, lo mismo con el muelle de cruceros y otras actuaciones.

El Sr. Burzako indica que Eusko Alkartasuna, desde el Área de Medio Ambiente, planteó unas consideraciones respecto al Avance, que no se han tenido en cuenta, en las que se indicaba que se planteaba un urbanismo desproporcionado, lejos de los criterios de sostenibilidad y que hipotecaba el futuro de Getxo. Estima que en el dimensionamiento ha de atenderse previamente a las necesidades del municipio, y en todo caso, si se estima conveniente, atender a las necesidades de otros entornos municipales, y que esta cuestión se manifestó también a Visesa y al

eta arkitekto idazleari ere idazki baten bitartez planteatu zitzaiera adierazi du. Idazki horretan ingurumen-inpaktuari buruzko eta iraunkortasunari buruzko azterketak egin zitezela eskatzen zen. Bere ustez, aipatutako azterketa horietatik joz, hartu behar diren erabakietan aurrera egin ahal izango da, eta erabakiek beste antolamenduko plan batzuk aintzat hartu beharko dituela ere aipatu du. Adibidez, litoralaren planak, pinudien eremuei dagokienez, eraispenak ekidin beharko dituzte eragina jasaten dutenekin akordiorik ez baldin badago, Kandelu erreka bioaniztasunari buruzko azterketak gehitu beharko dituzte eta eraikuntzako dentsitatea udalerriko eremu garai eta baxuekin batu beharko dute, besteak beste.

Urkiza jaunak Udalaren Gobernu Batzarrak Aurrerakuntza bat onetsi zuela eta iradokizunak egiteko epe bat onetsi zela adierazi du, eta denak aztertuko dira. Lurzoruaren Legearen argitalpenak eta aurkeztu ziren alegazioek dokumentua berriz formulazera eta beste Aurrerapen bat onestera behartzen dutela gogorarazi du. Lurraldeko Zati-planak etxebizitzaren gutxienezko eta gehienezko dentsitateak zehazten dituela errepikatu du, eta planteatzen direnek biztanleen beharrei erantzuten dietela adierazi du, izan ere, biztanle kopuru berarentzat etxebizitza bakoitzeko okupazioaren batez bestekoa jaitzarazteko, beharrezkoa da etxebizitza kopurua handitzea. HAPNak jada urbanizagarri gisa definitu zuen eremu bat berriz dentsifikatzean datzala gogorarazi du, eta kalifikazio horren gainean oposizioak ez du inolako kezarik azaldu. HAPNan planteatzen diren

arquitecto redactor en un escrito de hace un año, en el que se pedía un estudio de impacto ambiental y un estudio de sostenibilidad. Estima que a partir del conocimiento de esos estudios se podrá avanzar en las decisiones a adoptar, que también deberán tener en consideración otros planes de ordenación existentes, como el del litoral, respeto a las zonas de pinares, deberán de evitar los derribos si no hay acuerdos con los afectados, incorporar estudios sobre biodiversidad del arroyo Kandelu y conjugar la densidad edificatoria con las zonas altas y bajas del municipio, entre otras cuestiones.

El Sr. Urkiza indica que la Junta de Gobierno Local aprobó un Avance y se aprobó un plazo para sugerencias, y todas las presentadas van a ser estudiadas. Recuerda que la publicación de la Ley del Suelo y las alegaciones presentadas obligan a reformular el documento y a aprobar un nuevo Avance. Insiste en que el PTP determina densidades mínimas y máximas de viviendas, y que las que se plantean responden a las necesidades de los vecinos ya que al bajar la ocupación media por vivienda para alojar al mismo número de ciudadanos hace falta mayor número de viviendas. Recuerda que se trata de redensificar una zona que el PGOU ya había definido como urbanizable, clasificación sobre la cual no se ha manifestado ninguna protesta por parte de la oposición. Estima que las modificaciones que se planteen del PGOU tendrán que definir cuántas viviendas nuevas se crean, de ellas

aldaketek zenbat etxebizitza berri sortuko diren definitu beharko dutela uste du, baita horietatik zenbat izango diren babes ofizialekoak, izango duten garaiera eta sistema orokorrak ere, izan ere, determinazio horiek zehaztu gabe, ezinezkoa da inolako alternatibatan aurrera egitea. Ezker Batuak 8.500 etxebizitza eraikitzea planteatzen du, eta horietatik 5.500 babes ofizialekoak izan daitezela, izan ere, etxebizitzaren arazoa EB/B-ren kezka handienetako bat da. Eta proposamen zehatza alegazioak eta Lurzoruaren Legea aztertzen bukatu ondoren aurkeztu ahal izango dutela eta eraikuntzetan murriztapenak eta beste egokitzapen batzuk planteatuko dituela, eta eztabaida beti proposamen zehatzekin egin beharko dela adieraziz bukatu du.

Arrue andreak Landa jaunak oso ondo hitz egiten duela eta asko ikasia dela onartu du, baina berak eta talde Popularrak argi daukatela Getxorentzat aurrez ikusten den Lurrealdeko Zati-plana ez dutela nahi adierazi du. Arrue andreak Landa jaunak proiektu zehatz bat aztertu, bermatu eta onetsi duela gogorarazi du eta Lurrealdeko Zati-planak Andra Marirentzat planteatzen dituen gutxieneko 7.000 etxebizitzak egingo dituen galdetu dio. Talde Popularra ekintza horren kontra azalduko da eta horretarako planteatu da ohiz kanpoko bilkura, eta baita Lurrealdeko Zati-plana ez onartzeko mozioa ere.

Almansa jaunak Gobernuak Aurrerapena onartu zuenean huts egin zuela adierazi du, eta 2004ko urtarrilaren 30ean egin zen eztabaidan, Lurrealdeko Zati-planaren kontrako alegazioetan, talde Sozialistak eremu ez urbanizagarriak hedatzeko eta hiriaren

cuántas van a ser viviendas protegidas, las alturas de las mismas, los sistemas generales, ya que sin concretar estas determinaciones es imposible avanzar en ninguna alternativa. Ezker Batua planteo construir 8.500 viviendas, de las cuales 5.500 sean viviendas protegidas, ya que la problemática de la vivienda es una de las mayores preocupaciones de EB/B. Finaliza manifestando que la propuesta concreta la podrán presentar una vez que terminen el estudio que están realizando a las alegaciones y a la Ley del Suelo y que planteará reducciones en edificaciones y otros tipos de ajustes, y que el debate deberá realizarse siempre con propuestas concretas.

La Sra. Arrue reconoce que el Sr. Landa habla muy bien y que ha estudiado mucho, pero que ella y el grupo Popular tienen claro que no quieren lo que el PTP prevé para Getxo. Recuerda que el Sr. Landa ha estudiado, ha avalado y aprobado un proyecto concreto y le pregunta si va a hacer las 7.000 viviendas que el PTP plantea como mínimo para Andra Mari, actuación a la que el grupo Popular se va a oponer y en esa idea ha sido el planteamiento del Pleno extraordinario y de la Moción de rechazo al PTP.

El Sr. Almansa indica que con la aprobación del Avance el equipo de Gobierno cometió un error, y recuerda que en el debate celebrado en el Pleno del 30 de enero de 2004 cuando las alegaciones al PTP, el grupo Socialista planteaba la necesidad de ampliar las

garapena antolamendu handiagoak eta ekipamendu publiko handiagoak bilduz berriz definitzeko beharra zegoela planteatu zuen. Horrez gain, Lurraldeko Zati-planak irizpide batzuen ondoriozko etxebizitza kopuru bat aintzat hartzen duela, baina ez duela derrigorrez eraiki beharreko etxebizitza kopururik jasotzen adierazi du, izan ere, kopuru zehatza Udalean erabakitzen da, horregatik, hiria sortzeko aukera ematen duela uste du, eta talde Sozialistak horren alde egingo du, baina ez Udalaren Gobernu Batzarrak onetsitako Aurrerakuntzak jasotzen dituen irizpideekin.

Landak EAJ-ren proposamena ez dela Andra Marin 8.000 etxebizitza eraikitzea adierazi du, eta Lurraldeko Zati-planak udalerrri osoaren mugaren barruan; hau da, Andra Mariko lurzoru urbanizagarriaz gain, hiri-lurzoruan ere etxebizitza kopurua eta horien banaketa kalkulatzeko ahalbidetzen duela esan du. Ondorioz, Udalaren esku geratuko da, talde politiko guztien parte hartzearekin, Lurraldeko Zati-planaren hedakuntza zehatza definitzea, baita babes ofizialeko etxebizitza kopurua definitzea ere, eta berriro errepikatu du, bere ustez Andra Marin ez diran ezinbestean 8.000 etxebizitza eraikiko.

Burzako jaunak EAK ingurumenaren gaineko inpaktua eta iraunkortasunari buruzko azterketak eskuragarri ez dauden bitartean ez duela eraiki beharreko etxebizitza kopurua adieraziko berretsi du. Eta eraikuntzak planteatzerakoan komunikazio bideekin daukaten tartea, gaur egun eremu populatuena denetik populazio gutxien daukan eremurako hazkuntzak pixkanakakoa izan behar duela, hutsik

zonas no urbanizables, la redefinición del desarrollo de la ciudad, recogiendo mayores ordenaciones, mayores equipamientos públicos, y que el PTP contempla un número de viviendas derivadas de unos criterios, pero no recoge un número de viviendas de obligatoria realización, ya que la cuantificación concreta la decide el Ayuntamiento, por lo que estima que da la posibilidad de generar ciudad, que es lo que va a apoyar el grupo Socialista, pero no con los criterios recogidos en el Avance aprobado por la Junta de Gobierno Local.

El Sr. Landa manifiesta que la propuesta del PNV no es construir 8.000 viviendas en Andra Mari, y que el PTP posibilita calcular el número de viviendas y su distribución en todo el término municipal, incluido en suelo urbano, además de en suelo urbanizable de Andra Mari, por lo que corresponderá al Ayuntamiento, con la participación de todos los grupos políticos, definir la aplicación concreta del PTP, la definición del número de viviendas protegidas, y que, insiste, no estima que sea necesario incrementar construir 8.000 viviendas en Andra Mari.

El Sr. Burzako ratifica que EA no va a indicar el número de viviendas a construir, en tanto no se disponga de los estudios de impacto ambiental y de sostenibilidad, y que también hay que tener en cuenta a la hora de plantear las edificaciones, las separaciones de las mismas a las vías de comunicación, la necesidad de que el crecimiento sea paulatino de la actual zona más poblada a la zona menos poblada, que

dauden etxebizitzaren kudeaketa instituzionala behar dela, eta beharrezkoa den etxebizitza kopuruaren alde aurreko balorazioa beharrezkoa dela, eta eraikuntzak gauzatzean energia alternatibo berriak ere aintzat hartu behar direla ere kontuan hartu behar da.

Urkiza jaunak proposamen guztiek euskarri argi bat eduki behar dutela errepikatu du, datu zehatzekin, eta EB/B-ren proposamenaren helburu nagusia babes ofizialeko etxebizitza sustatzea dela adierazi du. Landa jaunaren parte hartzea kritikatu du, izan ere, Lurraldeko Zati-planak derrigorrezkoak diren alderdi batzuk dauzka, udalaz gaineko edozein planteamendu den heinean, udalerraren parte hartzea mugatzen baitu.

Arrue andreak parte hartu du, herritarrak talde Popularrari esker ari direla alderdi politikoek pentsatzen dutena jakiten, eta Landa jaunari Andra Mari 8.368 etxebizitza eraikitzeke proiektuaren alde egin zuela gogorarazi dio. Erabaki hori biztanleekin, eta oposizioko alderdi politikoekin hitz egin gabe hartu zuen, eta orain, biztanleriaren ezezkoa ikusita, hitza jan du, arrazoi elektoralista argiak direla medio.

Almansa jaunak talde guztiek, biztanleekin batera, Andra Marirentzako definituko den planteamendua idazteko aukera izango dutela adierazi du, eta talde Sozialistaren proposamena errepikatu du, hain zuzen, hiriaren egitura, auzoko bizitzarekin, plaza, parke eta hiriaren generazioarekin jasotzeko. EB/B 5.500 etxebizitza eraikitzearekin

hace falta una gestión institucional de la vivienda vacía, y una valoración previa del número de viviendas necesarias, así como tener en cuenta las nuevas energías alternativas a la hora de realizar las edificaciones.

El Sr. Urkiza insiste en que cualquier propuesta debe tener un soporte claro con datos concretos, y que el ánimo principal de las propuestas de EB/B es fomentar la vivienda protegida. Critica la intervención del Sr. Landa en el sentido de que el PTP tiene aspectos de ordenación obligatoria, ya que, como planteamiento supramunicipal que es, limita la intervención del municipio.

Interviene la Sra. Arrue para indicar que a gracias al grupo Popular los vecinos se están enterando lo que piensan los partidos políticos, y recuerda al Sr. Landa su apoyo al proyecto de construcción de 8.368 viviendas en Andra Mari, decisión que adoptó sin hablar ni con vecinos, ni con los grupos de la oposición, y que ahora, ante el rechazo vecinal, se desdice de lo que aprobó, por clara motivación electoralista.

El Sr. Almansa indica que todos los grupos tienen la oportunidad, juntamente con los vecinos, de redactar el planeamiento que vaya a definirse para Andra Mari, e insiste en la propuesta del grupo Socialista de recoger un tejido urbano, con vida de barrio, con plazas, parques y generación de ciudad. Indica que EB/B se empeña en construir 5.500 viviendas

tematuta dagoela adierazi du, baina horretarako beharrezkoa da aldez aurretik ondo pentsatuz eta modu ordenatuan etxebizitza beharrari buruzko azterketa serio bat egitea.

Landa jaunak Lurraldeko Zati-planak udalerrri bakoitzaren etxebizitza beharrak kalkulatzeko formula bat definitzen duela adierazi du, eta aldagaietako bat, Udalak berak definitu behar du. EAJ-ren proposamena publikoari, biztanleei eta elkarteei helarazi zaiolako dela ezaguna adierazi du, baita hedapen lanarekin jarraituko duela ere. Eta etxebizitza kopurua zehazteko behetik hasi beharra dagoela esan du, hain zuzen, beharrak, lurzorua, etab. definituz. Lurraldeko Zati-plana indarrean dagoela gogorarazi du, baita plan horretara egokitzeko bi urteko epea ematen duela ere, eta Lurzoruaren Legera ere moldatu beharra dagoela adierazi du, horrek gaur egungo Plan Orokorrak Andra Marirentzat jasotzen dituen dentsitateak baino dentsitate altuagoak eskatzen ditu.

Burzako jaunak etxebizitza kopurua ere elkarrekin erabaki beharra dagoela adierazi du, betiere, espazio libre handien definizioaren zehaztapenekin, eta komunikazio bideen arautzearekin. Eta Aurrerakuntzan aurrez ikusten den etxebizitza kopuruarekin ez daudela ados errepikatuz bukatu du.

Urkiza jaunak EB/B-k Udalaren Gobernu Batzarrari, aipatutako Aurrerakuntza aprobetxatzeko proposatu ziola adierazi du, eta alegazioak oinarritzat hartuz, kontu hori berrikusten ari da, eta proposamen berri bat sortuko da. Proposatutako

protegidas, pero que para eso es necesario previamente hacer un estudio serio de necesidades de vivienda de manera reflexiva y ordenada.

El Sr. Landa indica que el PTP define una fórmula para calcular las necesidades de vivienda de cada municipio, y una de las variables, la debe definir el propio Ayuntamiento. Indica que la propuesta del PNV es conocida porque ha sido manifestada al público, a vecinos, a asociaciones, y va a seguir con su labor de difusión, y que para definir el número de viviendas hay que empezar desde abajo, con definición de necesidades, suelos, etc. Recuerda que el PTP es vigente, y que otorga un plazo de dos años para realizar la adaptación a dicho planeamiento, y que también que hay que adaptarse a la Ley del Suelo, lo que exige mayores densidades que lo que el actual Plan General recoge para la zona de Andra Mari.

El Sr. Burzako indica que el número de viviendas ha de definirse también conjuntamente, en todo caso, con las determinaciones de definición de grandes espacios libres, y la regulación de las vías de comunicación. Finaliza insistiendo en que no están de acuerdo con el número de viviendas previstas en el Avance.

El Sr. Urkiza indica que EB/B propuso a la Junta de Gobierno Local aprovechar dicho Avance, y en base a las alegaciones, se está revisando la cuestión, y se generará una nueva propuesta. Recuerda que la densidad que se propone es muy inferior a la que

dentsitatea Algorta eta Areetako dentsitatea baino askoz baxuagoa dela gogorarazi du. Eta Hiri-Antolamenduko Plan Orokorrak Andra Mariko Lurzoru guztia "urbanizagarri" gisa kalifikatu duela gogorarazi du, baita aipatutako plan horren kontrako botoa eman zuen alderdi bakarra EB/B izan zela ere.

Proposamena bozkatu da eta honako emaitza hau lortu da: PPren 9 boto alde, eta EAJ, EA, EB/B eta PSE-EEren 16 boto kontra.

Ondorioz, gehiengoak ezezkoa eman zion udaleko talde Popularrak aurkeztutako proposamenari. Getxoko Udalak, Barakaldoko Udala egiten ari den bezala, Lurraldeko Zati-plana gure herrian aplikatu ez dadin beharrezkoak diren neurriak hartzeko konpromisoa hartzeko proposatu zuten, izan ere, Getxo eta getxotarren interesen kontra larriki eragiten duela uste dutelako.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du egun honetako ordu bi eta erdietan. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu.

existe en Algorta y en Las Arenas, y recuerda que el Plan General de Ordenación Urbana clasifica de "urbanizable" todo el suelo de Andra Mari, y que el único grupo que votó en contra de dicho Plan fue EB/B.

Sometida la propuesta a votación obtuvo el siguiente resultado: 9 votos a favor del PP y 16 en contra del PNV, EA, EB/B y PSE-EE.

En consecuencia, fue denegada, por mayoría, la propuesta presentada por el grupo municipal Popular sobre "que el Ayuntamiento de Getxo al igual que está haciendo el Ayuntamiento de Barakaldo, se comprometa a adoptar las medidas necesarias para que el PTP (Plan Territorial Parcial) no sea de aplicación en nuestro municipio por considerar que atenta gravemente contra los intereses de Getxo y de todos los getxotarras.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las catorce horas y treinta minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.